

Euskal Herriko gatazka politikoaren testuinguruan milaka giza eskubideren urraketak gertatu dira, ehunka heriotza. Horiei guztiei egia, aitortza, justizia eta erreparazioa zor diegu, diskriminaziorik gabe, salbuespenik gabe. Errazegi eta sarritan esaten den esaldia da hau baina oso zaila Estatuaren bortxa pairatu dutenen kasuan errealitate bilakatzea...

Oraindik kasu gehiegitan EGI Arako duten eskubidea ukatzen baitaie. EGIA oinarrizko elementua da, besteak beste gertatutakoaren memoriaz hitz egitean, elkarbizitzaren eraikuntzan edo giza eskubideen urraketak jasan dituzten pertsonen eremuan.

Hemen gaudenok memoria dugunetik ezagutu dugu Bertsio Ofizialen pisua, dimentsioa, eragina... Instantzia ofizialetatik gatazkaren esparruan gertatutako heriotza ugariren inguruan eraikitako bertsioak. Bertsio horiek funtsezkoak izan dira giza eskubideen aurkako ekintzak justifikatzeko, boteretik erabilitako indarkeria legitimatzeko eta zigorgabetasunez estaltzeko.

Guzti honetaz tamalez, zerbait badakigu Lizartzan... Izan ere Ina Zeberio hil zutenetik 25 urte bete diren honetan bere heriotzen inguruan emandako bertsio ofizialak argitu gabeko galderez eta itzalez josita dirau. 1998ko ekainaren 5ko Ertzaintzaren operazio hartan gertatutakoaren Egia osoa ez dakigu oraindik eta uste dugu badela garaia kasu honen gainean argia jartzeko eta erantzun gabeko galderei eusteko.

Egia jakiteko garaia da.

1998ko ekainaren 5ko goizeko ordu bietan Ertzaintzak Gernikako Picasso kaleko pisuan zeunden 3 lagun, ustez atxilotzeko asmoz, operazioa martxan jarri zuen. Ina Zeberio lizartzarra hilda suertatu zen. Bere gorpuak 24 bala zulo zituen.

Juan María Atutxa orduko Herrizaingo sailburuak komunikabideen aurrean jakinarazi zuen bezala, Ertzaintzaren operazio honen ikerketak 1997ko abenduan hasi ziren, zehazki Bilboko Adiskidetasun kalean Guardia Zibilak burututako operazioaren ondorioz Gaizka Gaztelumendi eta Jose Miguel Bustinza hil eta 3 hilabete geroago.

Gernikako operazioaren aurreko hilabeteetan Ertzaintzak egindako jarraipenen grabazioak erakutsi zituen sailburuak Legebiltzarrean. Gernikako Picasso kaleko etxebizitzan bizi ziren pertsonen eta haien ustezko kolaboratzaileen gaineko polizia-kontrola erabatekoa zen aspalditik eta horren froga izan ziren Ekainaren 5ko operazio horren ondoren izan ziren atxiloteta ugari.

Giza Eskubideen Europako Auzitegiak dioen bezala Polizia-jarduketan planifikazioak eszenatokiak, aktoreak eta horiek konpontzeko aukera ugari aurreikustea eskatzen du. Strasburgoko Auzitegiak hainbat epaitan azaldu du beharrezkoa dela agintariek eta poliziako goi-kargudunek berariazko jarraibideak ematea eragile jarduleei. Jarraibide horiek, aginduak betetzeko helburua eta metodoa zehazteaz gain, irizpide argiak eman behar dituzte polizia-jardunean parte hartuko duten pertsonen eskubideak babesteko, bai protagonistak, bai unean uneko pertsonak.

Hau horrela izanda, ezinbestean sortzen zaigun galdera da, Ertzaintzaren kontrolpean bazeuden, jarraipen estuak egiten ari baitzieten, zergatik otu zitzaion Ertzaintzari atxilotzeko testuingururik hoberena zela, gaueko ordu txikietan armak dituzten pertsona batzuen pisuan sartzea? Zergatik ez paseatzen zeuden bitartean Bilboko Arriaga antzokiaren parean edo bus geltoki batean zeudelarik atxilotzea?

Gehiegitan entzun ditugu segurtasun arrazoiak direla medio edo inguruko pertsonen kalteak ekiditeko baztertu egin dituztela kalean atxilotzeko aukerak... baina askotan ere ikusi dugu gauekotasunak eta pisu edo gune baten isolamenduak sorrarazten duten opazidatea ahalbidetu duela giza eskubideen kontrako jarduerak ematea lekukoak saihestuz.

Kasu honen gaineko bertsio ofiziala Atutxa sailburuak eman zuen, Ikerketa judiziala

oraindik egiten ari zela eta sekretupean zeuden inguruabarrak prentsa aurrean hedatu zituen. Gogoratu behar dugu, Atutxak Eusko legebiltzarrean egindako agerraldian, sutzuki ziurtatu zuela Ertzaintza Picasso kaleko pisuan sartu zenean, Ina Zeberio berak hasi zela Ertzaintzaren kontra tiro eginez. Tirokatu zuen lehena Ina izan zela argudiatuz. Ondorioz, Ertzaintzak eraso hori uxatu eta bidezko defentsan erasoari aurre egin zuela gaineratu zuen, Ina hilda suertatuz.

Argudio berdina erabili zuen espainiar Estatuko barne ministroak Gaztelumendi eta Bustinzaren hilketen inguruabarrak azaltzeko, argudio berdina erabili izan da behin eta berriro... izan ere, bidezko defentsa adierazteak zilegitasunaz janzten baititu poliziak eragindako hilketak.

Gogoratu behar dugu Atutxa jaunak baieztapen hori egin zuenean oraindik Inaren eskuetako bolboraren frogaren emaitzak ez zituela....Gogoratu behar dugu ere, ikerketa judizialak ez zuela argitu lehenengo tiroa zeinek egin zuen. Baina barne sailburuak ertzaintzaren jarduera legitimatzeko helburuz azkar eraiki eta zabaldu zuen gertatutakoaren bertsio ofiziala. Gorputz polizialen arduradun politikoen aski ezagututako prozedura.

Ikerketa judizialak ez zuen ez, zeinek tirokatu zuen lehenik argitu...baina gogoratu beharra dago ere, Ertzaintzaren operazioan Inaren heriotza giza eskubideen kontrako balizko jardueraren ondorioz eman zen ala ez ikertu zuena Ertzaintza bera izan zen. Gertakarien erantzuleak berak ikerketa lanetan argitzeko ekintza legitimoa izan zen ala ez Ina hiltzea. Gatazkaren testuinguruan ohiko praktika ezaguna hau ere. Argigarriak oso dira Giza Eskubideen Europako Auzitegiko ebazpenak honen inguruan, Ikertzaileen independentzia eta inpartzialtasunaren beharraz hain zuzen ere. Hauxe baita ikerketa eraginkorraren nozioari berez datzekion ezaugarri bat.

Epaileak berehala ikerketa ixteko autoa plazaratu zuen, inori testigantza hartu gabe eta akusazioak gertatutakoa argitzeko helburuz eskatutako hainbat eta hainbat frogari muzin eginez. Apelaziora jo behar izan zuten Akusazioak baina baita Fiskaltzak ere, eta 2 urte ondoren ixteko Autoaren aurka jarritako helegitea irabazi ondoren, parte hartu zuten Ertzainei zein Inaren lagunei hartu zitzaizkien testigantza. Ertzainek Sailburuak bere garaian zabalduetako bertsioari ekin zioten, salbuespenik gabe.

Pisuko pasilloaren bukaerako gelan Inarekin batera zeuden bi lagunak testigantzen arabera, Ertzaintzak lehergailua baliatuz etxeko atea bota, Ertzaintza zelaren oihurik egin gabe. Etxeko sarreratxoan igaro eta berehala pasilloan sartzen ari zirela Ertzaintzak hasi zuen tiroketa. Ilun zegoen dena eta soilik ertzainek zeramaten argia. Konturatu zirenean 3 lagunak fondoko gelan zeudela, inolako probokazio edo arrazoirik gabe hasi ziren tirokatzen. Inarekin zegoen lagun horietako batek bere burua bota zuen 2. pisu hartako leihotik, tiroketatik ihes egiten saiatzen...Bigarren lagunak ziurtatzen du behin baino gehiagotan entzun zituela "*Hijos de puta, estáis muertos, salid, al suelo*" esaten zuten oihuek. Baina biek ziurtatzen dute tiroketa Ertzaintzak hasi zuela, inolako zalantzarik gabe.

Baina dagoeneko bertsio ofiziala eraikita zegoen, eta ikerketaren arduraduna ikertzen ari zen gorputz polizial berdina zen. Hala eta guztiz ere, ikusten dugun moduan, badira oraindik kasu honekiko argitu beharreko inguruabarrak.

Herri honek bortxazko historia luzea du, eta bortxa horren ondoriozko gertakizun guztiak memoriaren parte dira. Memoria beraz, denon ondarea behar du izan.